



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ez-Ohikoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2013/12/23
Ordua: 14.00 – 14.15
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Bertaratuak:

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn (ALKATEA. BILDU)

PEDRO JOSE JAYO GOROSPE,jn (BILDU)

NEREA ZARRABEITIA ASUETA. and. (BILDU)

ETOR GORROÑO GEREDIAGA jn (EAJ-PNV)

Ez bertaratuak:

D. PAUL BAÑOS ONAINDIA jn (BILDU)

D. JOSE MARÍA ALBERDI GORROCHATEGUI jn (BILDU)

D. OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn (EAJ-PNV)

Idazkaria: David Álvarez Martínez



Aztergaiak

- 1.- Aurreko Akta irakurri, eta ahala badagokio, onartzea.
- 2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.
- 3.- 22013-3 kreditu aldaketa, hala badagokio onartzea.
- 4.- Udal liburutegiarentzako fotokopiagailu baten rengtingaren esleipena, hala badagokio.
- 5- Izurtzako Toki planean (Toki agenda 21 planean) 2014rako ekintza berriak, hala badagokio, sartzea.
- 6.- Izurtza udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana, hala badagokio, ,onartzea.
- 7.-Erreguak eta Galderak.



Esan-eginak eta erabakiak

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- Aurreko Akta irakurri, eta hala badagokio, (2013/10/17 eta 18/11/2013)

Alkate jaunak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek akten testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, aktak bozkatu eta bertaratutako kide guztien aho batez onetsi dira.

2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.

Zenbakia	Gaia
142	Udal materiala erabiltzeko baimena
143	Instalakuntza batzuk kentzeko epea ematea
144	Irekitze lizentzia eta aktibitatea legeztatzea
145	Diru laguntza ezeztatzea
146	Zerbitzu musikaleko zerbitzu kontratuaren eskaintzak sailkatzea
147	Lur, Lur gai eta Lurzorua erabileragatik kitapena
148	Zerbitzu musikalen kontratua esleitzea
149	Gastu onarpena
150	Fidantza itzulketa
151	Zerbitzu kontratua esleitzea
152	Ibilgailuen zerga itzultzea
153	Gastu onarpena.
154	Zerbitzu kontratua esleitzea
155	Zerbitzu kontratua esleitzea

156	Legez kanpoko obra aitortzea
157	Diru laguntza nominatiboa ematea
158	Kirol diru laguntza ematea.
159	Gastu onarpena.
160	Udal materiala erabiltzeko baimena
161	Betearazpen agindua ematea
162	Gastu onarpena.
163	UE Garaunza izeneko E.U. -tzat Hirigintza jarduera programa hasierako izaeraz onartzea.
164	Erralde hiltegiaren zorra ordaintzea.
165	GaztARDOgi III. Sariak
166	GaztARDOgi III. gastuak
167	Udal Padroitik ofizioko baja ematea .
168	AR2 Plan partzialaren izapideekin jarraitzea ez onartzea
169	Aurrekontuaren aldaketa. Kreditu transferentzia.

Osoko bilkura jakinean ipini da.

3.-22013-3 Kreditu Aldaketa, hala badagokio, onartzea.

Idazkari Kontu-hartzaile jaunak hitza eman du eta honek laburki 2013ko abenduaren 16ko Ogasun Komisioaren diktamena azaldu egin du. Beste inork ez duenez hitzik hartu, bozkatu eta aho batez ondorengoa onartu da:

Lehena.-Onartzea kreditu aldaketa egiteko espedientea, era honetara

Kontu-saila				Deskribapena	Euroak
Funtzionala		Ekonomikoa			
Taldea	Funtz.	Kap. Kontzeptua	Art.		
	441	69200		Inversión en Infraestructuras	23.655,97€
	120	62203		Rep. Caminos	1.220,96€
				Guztira	24.876,93€

Altak gastu-sailean

Kontu-saila			Deskribapena	Euroak
Funtzionala		Ekonomikoa		
Taldea	Funtz.	Kap. Art. Kontzeptua		
	120	1200	Langile Funtzionarioak	1.000€
	120	1300	Langile Laboralak	4.600€
	432	64202	Proyecto Ejecución Viviendas	17.871,70€
	432	22707	AAOO eta garapen zerbitzua	1.405,23€
			Guztira	24.876,93€

Bigarrena.-Honako egintza hau irmoa eta betearaztekoa denez gero, ez dago bestelako tramiterik egin beharrik; hortaz, eta gaurtik aurrera, Fondoan Kontu-hartzaileak kontabilitatean jasoko du egindako aldaketa.

4.- Udal liburutegiarentzako fotokopiagailu baten rengtingaren esleipena, hala badagokio.

Idazkari Kontu-hartzaile jaunak hitza eman du eta honek laburki 2013ko abenduaren 16ko Ogasun Komisioaren diktamena azaldu egin du. Beste inork ez duenez hitzik hartu, bozkatu eta aho batez ondorengoa onartu da:

Lehenengoa.- Canon Bussines center-i, BNP PARIBAS-en bitartez, udal liburutegiaren fotokopiagailuarn rengtinga esleitzea. Zenbatekoa 5.400€ gehi beza izango da eta 60 kuotan ordainduko da.

Bigarrena.- Gastuak gastuen aurrekontuetako partidatik zuzentzea

5- Izurtzako Toki planean (Toki agenda 21 planean) 2014rako ekintza berriak, hala badagokio, sartzea.

Alkate jaunak Izurtzako Toki planaren (Toki agenda 21 planaren) barruan 2014rako jorratu nahi



diren ekintzen berri eman du.

Ez da beste inolako partehartzerik egon eta Udalbatzak, aho batez, 2014rako Izurtzako Toki Planaren barruan hurrengo ekintzak lehentasun handiarekin sartzea eta garatzea onartu egin du:

a) Errotonda bat egiteko eskatzen da gasolindegia ondoan. Aldundiak diru laguntza eman dezan eskatzen jarraitzea.

b) Onartutako 14 etxebizitza sozialak egiteko proiektua gauzatzeko eskatzen da.

c) Herriko jubilatuena bizi kalitatea hobetzeko euren arteko harremanak eta bizitza dinamizatu. Elkalanean egiteko laguntza eskaintza.

d) Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako eta Durangoko Mankomunitateak kudeatzen duen Gaztedi Planaren informazioa zabaltzea eta udalaren inplikazioa haren garapenean.

6.- Izurtza udaleko euskararen erabilera normalizatzeko plana, hala badagokio, onartzea.

Idazkari Kontu-hartzaile jaunak hitza eman du eta honek laburki 2013ko abenduaren 16ko Kultura Komisioaren diktamena eta Hizkuntzako Politikarako Sailburuordetzak egindako aldeko txostenaren berri eman du.

Beste inork ez duenez hitzik hartu, bozkatu eta aho batez ondorengoa onartu da:

Lehenengoa.- V. Plangintzaldiko (2013-2017) Izurtzako Udaleko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planari onrtzea.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntzako Politikarako Sailburuordetzak erabaki honen berri ematea.



7.-Erreguak eta Galderak.

Ez dira egon.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

Idazkarja



IZURTZA
UDALA

O. E.

Alkatea

